

## **“BIZKAIKO HEDABIDEAK SL ENPRESAREN GARDENTASUN TXOSTENA**

### **1. Antolaketari buruzko informazioa**

Bizkaiko Hedabideak SL sozietatea hurrengo xedearekin sortu zen: Batetik, beregain nahiz besteren kontura ale inprimatuak, liburuak, diskoak, errebistak eta egunkariak editatzea eta argitaratzea, baita haiek banatzea, saltzea eta haien publizitatea ustiatzea ere. Bestetik, interneteko jarduerak egitea, atariak sortu, garatu eta ustiatzea barne.

Bizkaiko Hedabideak SLren adiminstratzaile bakarra Berria Taldean kokatzen den Bertako Hedabideak SL da, azken honek persona fisiko bezala jarduten duelarik.

Bizkaiko Hedabideak SL-ren jarduera nagusia Bizkaiko Hitza papereko astekaria eta bere webgunea kudeatzea da.

Antolaketari dagokionez, Berria Taldearen egituran dago kokatuta erabat. Sozietatearen langileak Berria Taldeko plantillaren baitan daude formalki. Eta funtzionamendu eta antolaketa guztia ere Berria Taldeko organigraman kokatzen da (lan ituna, soldatak, formazioa, ordutegiak eta abar).

Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT) da Berria Taldearen oinarria dagoen enpresa, eta bera 2003. urteko apirilean sortu zen, Egunkaria itxi ostean, lehenbailehen euskarazko egunkari nazional bat sortzeko xedez. Euskarazko komunikabideak sortu eta sustatzea da taldearen xedea.

Euskarazko egunkariaren proiektu berriari ekiteko, 2003ko maiatzaren 6an kapitala biltzeko kanpaina publikoa jarri zen abian, Berria berri lelopean. Herriz herri antolatutako batzordeen bidez, Euskal Herri osoan egin zen kanpaina. Gizarte eragile, erakunde publiko eta norbanakoek egindako ekarriari esker, kanpaina arrakastatsua izan zen. Guztira 24.404 akziodun eta 4.595.900 €-ko kapitala lortu zen euskarazko egunkaria sustatzeko.

BERRIA egunkariaren lehen alea 2003ko ekainaren 21ean argitaratu zen, Egunkaria itxi eta lau hilabetera.

Ikus Berri Taldearen enpresa egitura, bertan Bizkaiko Hedabideak SL kokatuta.



## 2. Informazio ekonomikoa eta aurrekontukoa

Gure irabaziak sozietatearen helburuetarako erabiltzen ditugu. 2021ko ekitaldiko negozio-bolumena, hau da, jasotako diru-sarrera guztiak 152.255 euro izan dira. 2021ko ekitaldiaren aurrekontuko jarduerak aurreko urteetako joera berdina izan du, azken urteotako xedea bere horretan mantentzen delako. Dena den, soldata igoerek eta batik bat kostetan izandako igoerek (inpresioa, suminstroak,...), handiegia ez bada ere, bere eragina izan dute

## 3. Administrazio publikoarekiko harremanei buruzko informazioa

2021eko ekitaldian Bizkaiko Hedabideak SL enpresak Bizkaiko Hitza argiratzeko dirulaguntza jaso du Bizkaiko Foru Aldunditik.

Euskara, Kultura eta Kirol Foru Diputatuaren ekainaren 1(e)ko 1360/2021 Foru Aginduaren bidez, (BAO, 108 zk., ekainaren 9(e)koa) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 15(e)ko 115/2020 Foru Dekretuaren bidez onartutako diru-laguntzen deialdian ezarritakoaren arabera (foru dekretu horren bidez, 2021ean euskarazko aldizkariak argitaratzen dituztenei dirulaguntzak programa onartzen da), ondorengo ebatsi zuen:

**NAN-IFK:** B95394607

**ERAKUNDEA:** BIZKAIKO HEDABIDEAK SL

**PROIEKTUA:** BIZKAIKO HITZA

**ONETSIA**

**Proiektuaren aurrekontua:** 130.513,00 euros

**Aurrekontu araztua :** 130.513,00 euros

**Emandako zenbatekoa:** 82.103,35 euros

#### **4. Beste datu interesgarri batzuk**

Mikel Arregi Epelde Berria Taldeko Kudeatzaileak egindako txostena.

Harremanetarako: [gerentea@berria.eus](mailto:gerentea@berria.eus)

Txostena egin den data: 2022ko martxoaren 18an